

PAULO AGIRREBALTZATEGI

el euskera en este estatuto

Antes de analizar y juzgar el tratamiento que el Estatuto éste da al euskera es necesario tener en cuenta tres puntos: Que el euskera es el elemento fundamental que define a Euskal Herria y decide su personalidad; que el retroceso cuantitativo y cualitativo del euskera se ha debido en gran parte a la opresión y persecución lingüísticas; que en los últimos años existe una gran dinámica de recuperación lingüística en el pueblo vasco.

Casi todo lo que el Estatuto habla sobre el euskera lo hace en el artículo 6, en el que se mueve en el plano de principios: la *cooficialidad* del euskera (con el castellano), el hecho de que el euskera es *lengua propia* del País Vasco, el *derecho a usar y conocer* ambas lenguas por parte de los vascos y la regulación de este derecho, la *no-discriminación* por motivos lingüísticos, la función de *Euskaltzaindia*, la *relación cultural-lingüística* con el País Vasco Norte.

Más específicamente, pero también en el plano de principios, se alude al euskera, como "mérito preferente", para el nombramiento de magistrados, jueces y secretarios y demás personal de la administración de la justicia.

Por lo demás el euskera queda fuera de la perspectiva de este Estatuto: en la enseñanza, en los medios de comunicación social, en la administración y cargos públicos.

Esta indeterminación y este silencio son muy preocupantes para el futuro, que tan sólo se podrá resolver en favor del euskera, como lengua nacional, a través de la concientización, de la labor, de la lucha y de las constantes reivindicaciones populares.

EUSKARA ESTATUTUAREN ARABERA

Euskarak eman dio Euskal Herriari bere izena.

Euskal Herriaren naziotasuna definitzeko eta nortasuna finkatzeko oinarritzko garrantzi berezia du euskarak. Orain dela hiru urte argitara eman zen beste Estatutu baten aurreproiektuak, bere "zergatiak azaltzean" ("exposición de motivos" delakoan) honela dio: "Euskara, antonomasiar, nazional batasunaren elementurik jatorrena da, Euskal Herriaren nortasun ezaugarri bereziarena..." "Estatutuaren aburuz, euskara Euskal Herriaren ethni elkartearen elementu nagusi eta adierazgarriena da, eta euskaldunen hizkuntza nazionala".

Baieztape honen ondoan beste alderdi bi hartu behar dira kontutan: Urte luzetan, hizkuntz eta kultur politika zentralista eta kolonialistaren ondorio bezala euskarak atzerapen handia izan duela: gaurko kultura modernoa adierazteko gaitu ez delako eta leku eta familia askotan galdu egin de-



lako. Bestalde, bi aldetako atzerapen horren kontrako burruka handia muntatu eta eramana da azken urteotan: euskara gaurko

zientzietarako eta kulturarako gaitzeko eta euskaldunak euskalduntzeko eta alfabetatzeko. Dinamika berri bat sortu eta indartu

da, beraz, euskararen bidetik.

Guzti hau oso kontutan hartzekoa du. Euskal Herri honen egoerari eta dinamikari erantzun nahi dion edozein Estatutuk.

Gregorio Monreal-ek **Eskararen Liburu Zuria** delakoa artikulua bat emana du, "Hizkuntza Estatuoen politikan" izenekoa. Bertan agertzen du, mende honetan Euskal Herriarentzako egin izan diren Estatu-projektuetan zehar euskarari buruz dauden ezberdintasunak eta garrantzia arrerakorra.

Baina guzti horik orain dela 40 urte baino lehenagokoak dira. 1.979ko Estatuak euskararen arazoa nola ikusten eta legeztatzen duen argitzeko, ez dut uste egokiena denik, garai hartako Estatuuekin alderatzea. Hobe dela uste dut, urte hauek eta gaur bertan eskaintzen diren beste Estatu-projektuekin alderatzea. Hala ere hemengo asmo zuzenekoa ez da alderaketa edo konparazio hori egitea, eta bai, laister erreferendum bidez, euskaldunok onartu ala baztertu egingo dugun Estatuaren artikuluetan euskara nola agertzen den azaltzea.

Oinarriak

Estatuaren 6. artikuluan biltzen da euskarari buruz esaten den ia dena. Hemen ezartzen dira, hain zuzen ere, euskarari buruzko oinarriak.

Aurrenik Euskal Herriak **berea duela euskara**, esaten du; ez, ordea, **euskara duela berea**, Gernikan aprobaturiko Estatuak esaten zuen bezala. Estatuak ez du garbi esaten, gaztelania ere Euskal Herriak berea duenik; baina paragrafo berean, **ofizialtasuna** baieztatzean, maila bereberan jartzen ditu euskara eta gaztelania.

Gaztelaniaren ofizialtasuna Konstituzioan baieztatzen da Estatu osoari bagira; Estatu honetan, beraz, euskara ere ofiziala izango dela esaten da: Euskadiri dagokionez, halebria. Beraz, gaztelaniaren eta euskararen ofizialkidetasun hutsa ezartzen da hemen.

Ofizialkidetasunak euskaldun guztientzat balio du; eta Euskal Herriko biztanle guztiek hizkuntza biak ezagutzeko eta erabiltzeko **eskubidea** dute. Hementxe hasten da erdararen lehentasuna, Konstituzioak, 3. artikuluan, zera esaten bait du, gaztelaniari buruz: "Español guztiek jakitera **behartuta** daude eta erabiltzeko eskubidea dute". Beraz, euskaldunok, euskara jakiteko eskubidea dugu, baina gaztelania jakitera behartuta gaude.

Bigarren paragrafoa, eskubide hori betetzeko bidei buruz ari da. Komunitate autonomoko instituzioei dagokie hizkuntza bien erabilera segurtatzea, Euskal Herriaren barruan gertatzen diren egoera soziolingüistikoak kontutan izanez; instituzio horiek arautuko dute hizkuntza bien ofizialtasuna. Era berean, bi hizkuntzen ezagutzea segurtatzeko neurriak eta bideak ezarri eta erautuko dituzte.

Erabiltzearen, ofizialtasunaren eta ezagutzearen konkretatzea, beraz, egoera sozio-lingüistiko ezberdinen arabera joango da. Printzipio honen arabera, gerorako gelditzen da konkretatze hori.

Hizkuntza biak maila berean jartzen dira behin eta berriro; baina itxuraz bakarrik. Izan ere, kontuan edukiz aipatu dugun

Konstituzioaren 3,1 artikulua eta Euskal Herriari dagoen hizkuntzako egoera, nabarmena gertatzen da gaztelaniaren lehentasuna eta gailentasuna, Estatuaren ondoren ere. Estatu honek Euskal Herriko hizkuntzako egoera onartu egiten du, euskararen kontrako zapalkuntza eta eraso luzearen ondorioa dela kontutan hartu gabe. Beraz, Euskal Herriaren **bere** hizkuntzaren berreskuratzea (birreuskalduntzea)

bat hartzean, euskara jakitea baldintza bezala jartzerik? Benetan ez dut artikulua-zen zati hau ulertzen. Eta uste dudanez, beti doa euskaraz ez dakienaren alde; eta horrela nekez egingo dugu Euskal Herri euskalduna.

Bi puntu daude oraindik nahiko garrantzizkoak: Euskaltzaindiari dagokiona eta Iparraldearekiko harremanei dagokiena.

Irakurleak ongi daki, nola Madrilen



Estatututik kanpo galditzen da. Areago, pentsa daiteke, bide honetatik, Estatu eta guzti, euskararen atzerapenak berdintsu jarrai dezakeela, erdararen eraginez.

Izan ere, Gernikako Estatuak, goian aipaturiko printzipioaz gainera, beste bat ere ba zuen, oso garrantzizkoa: "oraingo egoera diglosikoa gainditzearena", halebria. Baina hau kendu egin da Madrilen. Eta egoera sozio-lingüistiko ezberdinen printzipioa bakarrik geratu da.

Honen arabera, eta lehen esan bezala, euskaldunok ba dugu euskara jakiteko eskubiderik; bain ez gaude beharturik. Eta areago, 3. paragrafoan esaten denez: "Inor ez da diskriminatuko hizkuntzarengatik".

Zer esan nahi du honek?

Legegizonak aterako lizkioke ondorio guztiak. Ni ez maiz legegizona; eta horregatik baharbada ez dut paragrafo hori ondo ulertzen. Dena dela, ikastolan irakasteko —eskola publikoak izango direnean—, edota Araozko auzo-alkate izateko, edota edozein bulego ofizialetan neri edo beste edonori erantzuteko, berdin ote da euskaraz jakitea ala ez jakitea?

Orduan, zertan da euskara nahiz erdararen erabiltzeko nere eskubidea?. Areago, edozein enpresa pribatuk ez ote du, langileren

"la erdarazko artikulua kendu zuten, (6. artikuluan, 4. paragrafoan). Gernikako Estatuaren Euskaltzaindia instituzio aholkulari ofiziala (bakarra) zen; Madrildik etorri den Estatuaren, ordea, "Instituzio aholkulari ofizial (bat) da. Aldaketa honen kontra altxa ziren Madrilen bertan hainbat Alderdi baina bere horretan gelditu zen. Geroztik Euskaltzaindiak berak protesta egin du eta paragrafo hori lehenetara eramateko eskatu; baina pentsa daiteke, Madrilen aldatu dutena hemen "birraldatzea" oso zaila izango dela. Zalantzarik ez dago, aldaketa horretan EAJ-PNVren barneko burrukak daudela tartean.

Artikuluaren azken paragrafoan, euskara dela eta, komunitate autonomoak Ipar Euskal Herriarekin eduki dezakeen harremanari buruz hitz egiten da. Onartzen da, bai, hegoaldearen eta iparraldearen arteko kidetasun kulturazko eta hizkuntzako hori; bain instituzio mailara eramateko, dena Estatuaren artean egingo da: Espainiaren eta Frantziaren arteko harremana internazional (interestatal) bezala. Komunitate autonomoak Espainiako gobernuari eskubidea egitea dauka; baina besterik ez. Gernikatik joan zen Estatuak, Komunitate autonomoari berari ematen zion, iparraldearekin kultur loturak eratzeko eskubidea.

Orain, zoritxarrez, Euskal Herriaren kulturazko eta hizkuntzazko batasuna Madril-dik eta Parisetik pasatzen da.

EUSKARA IRAKASKUNTZAN ETA GIZARTE-KOMUNIKABIDEETAN

Benetan azpitu-titulu hau alperrik jarri ote dudan nago. Beharrezkoa iruditu zait, hala ere, hutsunea nabarmentzeko besterik ez baldin bada ere. Izan ere, irakaskuntzan eta gizarte-komunikabideetan euskarak izango duen lekuaz tutik ere ez da esaten Estatutuan.

Ondorengo Dekretuetan konkretatu-ko dela euskararen erabilbidea bi alor nagusi hauetan? Baina, nere ustez, euskararen arazoa hain nagusia izanik, aipatu eta nabarmendu eta baieztatu beharra zegoen, bai irakaskuntzari dagokion artikuluan, bai gizarte-komunikabideei dagokienean. Estatutuan bertan, hain zuzen ere.

Kimu Berri Taldeak eman zuen Estatutu-projektua askoz konkretuagoa eta zehatzagoa zen euskarak irakaskuntzan behar duen lekuari buruz. Azken Udako Euskal Unibertsitateak ere ondo nabarmendu izan du puntu hau. Estatutua hau ixildu egin da. Beharbada gerorako utzi du, konpetentzien arazoa bera gerorako utzi duen bezala? Zalantza handiak sortzen ditu, dena dela.

Irakaskuntza-euskara arazoarekin nolabait lotuta dago 6,2 artikulua, zera dionean:

"...y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento". Hau da, gaztelaniaren eta euskararen ezagutzea. Baina irakaskuntzaren maila eta alor guztiak hortik urruti gelditzen dira artean. Eta zoritxarrez, Estatutu honetan oso aidean gelditzen da hor euskararen etorkizuna.

EUSKARA INSTITUZIOETAN

Juztiziaren administrazioaz mintzatzean, bi aldiz aipatzen da euskararen arazoa (art. 35,1 eta 3). Lehenengo paragrafoan, magistratu, epaile eta idazkari-izendatzeari buruz ari da; eta zera dio: "siendo mérito preferente el conocimiento del derecho foral vasco y el del euskera". Hirugarren paragrafoan, berriz, justizi administrazio-ko bestelako pertsonalari buruz ari da, eta zera dio horien hauetaketari buruz: "valorándose preferentemente en los sistemas de provisión, el conocimiento del derecho foral vasco y del euskera".

Egia esan, eta itxuraz behintzat, artikulua honetan hobeto gelditu da euskararen arazoa. Estatutua Madril-dik pasa ondoren; Gernikakoan ez bait zen aipatu ere egiten puntu hori.

Baina zer, bestelako funtzionarioei buruz? Estataleki nahiz autonomoei buruz? Horretaz ez dago ezer Estatutu honetan. Euskal Gobernu-ko kargu publikoren bat dutenek ez daukate euskaraz jakin beharrik,

Estatutu honen arabera; Lehendakaria bera era erdaldun hutsa izan daiteke, Estatutu honen arabera. Euskal Parlamentari guztiak erdaldun hutsak izan daitezke. Guzti hau benetan larria iruditzen zait.

Areago, Administrazio publikoko agiriak, etab. zein hizkuntzatan joango dira? Euskarak izango ahal du lekuri? Honetaz ere ez dago ezer Estatutu honetan. Euskal Parlamentuan, junta generaletan, Diputazioetan... dena erdara hutsean joan daiteke; eta ez litzateke Estatutu hau urratuko.

Dena gelditzen da 6. artikuluko 2. paragrafo abstraktuaren arabera: "Las instituciones comunes de la comunidad autónoma, ... garantizarán el uso de ambas lenguas, regulando su carácter oficial..."

ONDORIOZ

Hori da Estatutu honetan euskarari buruz dagoen guztia.

Zer gertatuko da Estatutuaren ondoren? Eta Estatutu hau izan arren?


Legea lege eta Estatutua Estatutu, ondorengo Dekretuek aginduko dute. Eta dekretu horiek euskararen alde aginduko badute, euskararen aldeko kontzientzia, lana, borroka, dinamika eta eskabideak bizkortu eta areagotu beharra izango da.

Bide handia dago egiteko; eta, zoritxarrez, Estatutu honek ez du bide berri argi eta zehatzik irekitzen. Arrisku handia!

Paulo Agirrebaltzategi

RAM

la leche de cada día



CENTRAL LECHERA VIZCAINA, S.A.